



Horrelakoak ginen

Irudian mende hastapeneko musika bandaren protagonistak ageri zaizkigu, garaiko arropa apainekin, San Fermin elizako atarian. Esku artean dugun datu bakarra, zera esaten digu: argazkia 1928. urtean ateratakoa dela. Kamara musika zikloa egiten ari den honetan, musikarien erretratu zaharra kaleratzea egoki ikusi dugu, antxotarren artean musika zaletasuna betitik sustraiturik egon denaren erakusgarri.

Iraganari begirada

KANIKAK

Kanikak kristala, harria edo lokatzarekin egindakoak ziren eta horren arabera neurtzen zen beraren balioa. Harrizko kanika batek, adibidez, buztinez egindako sei kaniken balioa izan zezakeen. Hala ere, kristalezkoak ziren baliotsuenak, aiton batek esaten zuen moduan *kategoikuak* ziren, eta bakar batek, lurrezko hamarren balioa izan zezakeen. Dena den balioaren kontua, jolastu behar zuten haurren artean zehazten zen jokoan hasi aurretik. Oro har, kristalezkoak eta harrizkoak ziren gogorrenak eta lurrezkoak berriz erraz hausten ziren.

Kanikak gehienetan erosiak izaten ziren. Garai batean ordea, limonada botilen tapek pieza borobil bat eramaten zuten eta hauek ere kanika bezala erabiltzen ziren. Baziren haurrak, jolasean zuten trebezi handiari esker kanikak inoiz erosi gabe beste inork baino kanika gehiago zituztenak.

BORDAUNDI



Erasoen aurrean
Euskal Herria
Abian

2003ko otsaila. Branka, Pasaiaiko herri-aldizkaria

36. zenb.

MULTIOPTICAS

ERRENTERIA

Esmalteria Plaza 7 • Tel. 943 51 78 11



Koordinatzaileak

Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste

Diseinua

Txema Garzia Urbina

Maketazioa

Urko Etxebeste

Publizitatea

Eñaut Gantxegi TEL.: 657 796 073

Kolaboratzaileak

Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo, Jon Goikoetxea, Izaskun Aldezabal, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, Enara Mateo, Maripi Etxarri, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz, Patxi Berdote, Unai Martin, Joseba Antxustegietxarte, Xabier Garagarza, Juanra Cano, Ander Poza, Iñaki Berrio, Lander Garro.

Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behelaldean duzun kupoia besterik bete behar eta helbide hauetara helarazi:

harpidetza
txartela

Izen deiturak.....
Helbidea.....Herria.....
KP..... telf..... e-posta.....

postaz
Branka Pasaiko herri-aldizkaria
Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia
telefonoz
943 34 10 45 telefonora deituaz
e-postaz
branka@euskalnet.net helbidean

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Pasaiko Udala



Eusko Jaurilaritzaren
Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentua

ELIOTSI
OBREN ONDORIOZ:
ESKALANTEGI
48-AN
GAUDE, PROBISIONALKI.
„BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZIA
MAITZAREN LEHENA 3. 30110 PASAI ANTZO. GIPUZKOA
943 530888.

Loradenda
MAIALEN
Ezkontzetarako lore-sortak
Lore-erdikaldeak
Lore-koroak
Etxez-etxeko zerbitzua
Nafarroa etorb. 16
tel.: 943 52 84 91 20110 PASAI ANTZO

Muebles
Altzariak **RUIZTEGUI, s.a.**
MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA
Nafarroa etorbidea 15
20110 Pasai Antxo
tel.:943510389 eta 943510736

laburrean

> **4-5 EZ ZAITEZ MOZTU**

> **6-13. BARRUTIZ-BARRUTI**

> **14-15 KORRIKA**

> **16-17. KALE INKESTA**

Zer iruditzen zaizu Euskaldunon Egunkariarekin gertatutakoa?

Egoera honen aurrean zer uste duzu egin behar dela?

> **18. ELKARRIZKETA**

Euskaldunon Egunkariako langile pasaitarrak

> **23. OROKORREAN**

> **24. MENDIZALEEN TXOKOA**


> **25. AGENDA**

> **26. KRITIKAK**

> **27. HORRELA-KOAK GINEN, IRAGARI BEGIRADA**



 **kutxa**
gizarte ekintza



ez zaitez moztu

Mendizaleok egunkariaren alde

1.- Euskaldunon Egunkaria itxi dute. Itxi digute irakurleoi, itxi digute mendizale eta bidaiariok, itxi diete langileei... Adierazpen askatasunaren eta informatzeko eskubidearen urratzea, komunikabide bat ixtearen bidegabekeria hitz jakintsuz adierazi dute askok eta askok, itxieraz ia hilabete bete den honetan. Euskal gizartea ere, pentsaera, alderdikeri eta ikuspegi guztien gainetik, garbi mintzatu zen Donostiako manifestazio gogoangarrian.

Euskararen eremu zabalean bizi nahi duten askok eta askok ere gogor salatu dute Egunkariaren itxiera. Euskaraz argitaratzen zen egunkari bakarra kendu baitiete, kendu baitigute. Lehendik ere bidea nekez egiten duen gure hizkuntzaren adierazpide nagusietako bat itxi dute; eta hori, bidegabea ezezik, ikaragarri larria da. Eraso honekin min izugarria egin diote euskarari eta euskal kulturari; min izugarria euskara maite dugun guztioi. Mendizaleok eta bidaiariok ere bat egin nahi dugu euskal gizartearen ahotsarekin, Egunkariaren itxiera bidegabea salatu nahi dugu eta euskarari egin dioten zauria gogor gaitzetsi.

2.- Euskalgintzako aldapak zein gogorak diren urte luzez probatu duten hamar euskaltzale atxilotu zituzten zorigaitzoko otsailaren 20 hartan, euskal kulturaren alde lan isil eta mardulean jardun duten hamar lagun. Ezagutzen ditugunok ondotoxo dakigu leporatzen zaizkienak ez direla egiak, euren errugabetasun presuntzioa larriki urratu dutela. Eta are larriago: torturak eta tratu txarrak sufritu dituztela salatu dute atxilotuek. Geroztik, atxilotuetatik sei aske geratu dira eta Pello Zubiria gaur bertan geratuko da aske. Beraz, zer dela eta trataera gaizto hau? Euskararen alde lan eskerga egin duten kulturgile hauei eta pertsona orori zor zaion errespetu eta duintasuna aldarrikatu nahi dugu. Eta oraindik askatu ez dituzten hiru lagunak berriro euskararen aldeko lanean nahi ditugula.

3.- Euskaldunon Egunkariak bazuen leiho bat munduari begira jartzen gintuena, mendiari eta bidaiei begira jartzen gintuena. Hortik zetorkion izena gehigarriari: MUNDUMIRA. Hori ere itxi digute mendizale eta bidaiariok. Egunkaria terrorea zabaltzeko tresna dela esan dute. Egunkari batek ezin du, ordea, inoiz deliturik egin, ezta terrorerik zabaldu ere. Egunkariak ez zuen halakorik egiten, ondo dakigu. Benetako terrorea sortzen duten gerra eta bestelako albisteen ondoan, bestelako albisteak eskaintzen zizkigun MUNDUMIRAK. Eta orain falta ditugu mendietako ibilbideak, gure espedizio eta eskaladen berri emango duten erreportaiak, gure bidaiarien ibiliak kontatuko dituen orrialdeak. Kendu digutelako munduari begira genuen leiho hori.

4.- Ezintasuna, amorrua, inpotentzia. sentimendu asko korapilatu da azken hilabete honetan. Baina bada beste sentimendu bat gailendu dena: elkartasuna. Egunkariari, langileei, atxilotuei, euskalgintzari babesa azaldu dio gizartearen gehiengo zabalak; erakunde, sindikatu, langile, kolore eta pentsaera guztietako herritarren gehiengoak. Hor dago herri

honen indarra, Egunkaria bezalako proiektuak sortzen dituen eta sortuko dituen.

Egunkaria itxi badute ere, proiektua ez dutelako hil. Aurrera begira, konpromisoak hartzeko garaia dela garbi utzi digute langileek. Eurak proiektu berria abiarazteko lanean ari dira gogotik. Mendizale eta bidaiariok ere, geure eginahala egin nahiko genuke proiektu berria bultzatu eta babesteko. Behar dugulako aurrez aipatutako leihoa, behar dugulako euskarazko egunkaria.

Euskal Herriko mendizale eta Bidaiariak

Batasunaren ilegalizazioa

Ertzaintzak joan den urteko abuztuan Batasunaren aktibitateekin amaitzeko bigarren pausua eman zuenean (lehenengo pausua Garzon epailearen Autoa izan zen), hirugarren pusua zain gelditu ginen denok, hotsunez, etorriko zena ia-ia barneratua baikenuen: ilegalizazioa. Zoritxarrez, ilegalizazioen kontu hau errutinazkoa edo ohiko bihurtu da gure artean, eta 97ko udan Egin egunkaria itxi zutenetik gure begi aurretik hainbat eta hainbat erakunde mapatik urratu dituzte: haika, amnistiaren aldeko abtzordeak, segi, askatasuna... eta hasiera batetan zentzurik ez zuenak (ilegalizazioak alegia) normaltasunez hartzera pasa gara. Eta bapatean Egunkariaren itxiera. Eta bapatean gure herrian lozorroan, pasibitatean, desesperantzan beharbada zeuden hainbat sektoretako heledunak kalera atera dira bidegabekeria hau lau haizetara salatuz, Guk, Batasuna ilegalizatuaren militanteok, bat egiten dugu salaketa ahots hauekin, eta are gehiago: Euskal Herrian Egunkariaren tamainako erasoak jasan dituzten erakundeen alde lanean jar daitezela eskatzen diegu, orain argiki ikusi baita Ezker Abertzalearen aurka Espainiar estatuak egin dituen erasoak ez zirela euskal gizartearen sektore zehatz batengana zuzendutakoak soilik, gizarte osoarengana baino. Horregatik, proiektu guztien alde, ideia guztien alde gaudelako, lan egin dezagun behingoz hauen alde, eta ez diezaiegun estatu zapaltzaileei geure etxean nahi duten bezala ibiltzen utzi. Batasuna aurrera! Euskal Herria aurrera.

Pasai Antxoko Batasuna

BRANKA ALDIZKARIKO ERREDAKZIOAREN OHARRA

Begi aurrean duzun hau zure hitzak jasotzeko Brankak eskaintzen dizun lekua da. Aurrerantzean ere zuen guztien gutunak jasotzeko irrikan gaude; kezkek, txaloak, kritikak, iradokizunak... den denak izango du lekua gure postontzi pottolo honetan. Beraz, anima zaitzete, eta gehiago pentsatu gabe igorri zuen eskutitzak kontrazalean ageri zai-zuen helbidera. Laister arte. Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen atal honetan adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



ez zaitez moztu

donibane

Antxon Basurko; zilarrezko domina

Martxoaren Setik 9ra "Atleta Helduen Pista Estaliko Europako IV. Txapelketa" jokatu zen Donostian eta bertan Antxon Basurko korrikalari sanjuandarrak, 60 metrotako frogan, 2. postuan sailkatzea lortu zuen, beraz Europako txapelkun ordea izatea hain zuzen ere. Lasterketa Manfred Koch alemaniarrek irabazi zuen 7,58 segundoko denborarekin, Antxonek 7,77 segundo behar izan zituen eta hirugarren postuan Britainia Handiko Glyndwr Sutton 7,84.

Helduen txapelketa hauetan kirolarien maila izugarrikoa dela esan behar da. Gizonez-kotan helduen kategorian parte hartu ahal izateko 40 urte beteak izan behar dira eta emakumezkoetan berriz muga 35 urtetan ezarrita dago. Adin hauetatik aurrera 5 urtetik 5 urtera taldeak osatzen joaten dira; hala nola 35-40, 40-45, 45-50... Donostian 70, 80 eta baita 90 urte zituzten atletak ikusi genituen pistan, korrika, saltoka edota jaurtiketak egiten eta pozgarria zen aiton-amonak hauek sasoi betean ikustea.

Antxon 55-60 urteko taldean aritu zen eta esan bezala adin hauetan ere egiten dituzten markak izugarrikoak dira. Froga egitea besterik ez dago, atletismoko pistara joan eta 60 metroak zenbat denboran korritzen ditugun ikusi.

Beste sanjuandar bat, Lurdes Mariezkurrena, hainbat urtetan eskubaloian ibilitako neska, ere bai bertan izan zen, Luresek Antxonek bezala 60 metrotako frogan parte hartu zuen. Dena berria zen berarentzat froga mota, txapelketa eta emaitza sekulakoa izan ez zen arren oso pozik geratu zen egindako lanarekin eta baita errepikatzeko gogoarekin ere.

Beraz zorionak bioi eta jarraitu horrela. 2005ean Munduko Txapelketa Donostian izango da eta bertan ikusiko dugu elkar.



■ Donibanen egindako ongi etorria.



■ 60 metrotako froga, Antxon helmugako marra parean.

Egunkaria aurrera

Donibanen

Egunkariarekin elkartasun eguna izan zen Euskal Herria osoan martxoak 13a. Sindikatuek deitutako paroarekin batera beste hainbat ekintza egin ziren Euskal Herrian zehar. Egunkariako langileen eta Kontseiluaren deiari jarraiki gure herrian bi mural margotu zituzten Euskaldunon Egunkariaren aldeko ekintza honetara hurbildu ziren guztiak. Berezi ki haurrak izan ziren ekintza honen protagonistak. Adin guztietako haurrak aritu ziren mural hauek margotzen.

Muralak aurrerantzean egingo diren Egunkariaren aldeko ekintzetan erabiltzeko asmoa dago.

Gure herritik sortzen zaigu... BADA

Orain dela egun batzuk Pasai-Donibanen, Victor Hugon, herri plataforma bat aurkeztu zen, Badia hain zuzen ere, eta bere nahiak eta asmoak jakiteko asmoz beraiekin hitz egin dugu.

Esan digutenez, Badia herri plataforma bat da, eta bere irizpide nagusiak, Euskal Herriaren eskubideen defentsa, euskal kultura, euskara, lurral-

detasuna eta autodeterminazioaren defentsa lireratek.

Herri plataforma hau, ezkertiar eta abertzale guztioi irekita dago, eta herri eraikuntzan aritzeko prest dagoen guztiari zabalik.

Badia, maiatzaren 25ean ospatuko diren udal hauteskundeetara aurkeztuko da, eta horretarako sinadura kopuru handi bat behar du.

Horrez gain, zera esan digute, plataforma hau ez dela hauteskundeetarako soilik jaio, baizik eta zabalagoa dela, eta goian aipatutako alorretan lana egin nahi dutela, gure herriko kulturari, euskarari ... bultzada handi bat eman nahi diote, gure herriak merezi baitu.

Oarsoaldeko II. Binakako Bertsolari Txapelketa

Pasa den martxoaren 14an, Korrika Kulturalaren barruan, Oiartzungo bertso eskolakoek eta Oreretako Xenpelar bertso eskolakoek antolatutako Oarsoaldeko II. Binakako Bertsolari Txapelketa 2. kanporaketa burutu zen Pasai Donibaneko Errekatxu tabernan. 3 bikote aritu ziren elkarren lehian, alde bategatik, Etxabe eta Miren Artetxe, bestetik, Iker Goñi eta Segundo Eskudero eta, azkenik, Karlos Aizpurua eta Juanito Mitxelena. Gai-jartzaile moduan Ke-

pa Isasi aritu zen eta bertsolariek honako ariketa hauei egin behar izan zieten aurre: lehendabizi, zortziko txikian gaia emanda 3na bertso abestu behar izan zituzten, ondoren, hamarreko txikian gaia emanda beste 3na bertso; hirugarren ariketa puntuka aritzekoa izan zen, hots, gai bat emanda binaka 6 bertso osatu behar izan zituzten bertsolariek eta azkenik, kartzelakoan, bikoteek 3 punturi erantzun eta gaia emanda nahi zuten neurri eta doinuak 2 bertso abestu behar izan zituzten. Puntu gehien lortu zituen bikotea Etxabe eta Miren Artxetxek osatutakoa izan zen, 472 puntu lortu zituztelarik. Bigarren bikoterik onena Karlos Aizpurua eta Juanito Mitxelena osatutakoa izan zen, 465.5 punturekin. Azkenik, Iker Goñi eta Segundo Eskudero osatutako bikoteak hirugarren postua lortu zuen, 434.5 puntu lortu zituztelarik. Giro aparta egon zen eta bertso ederrez gozatzeko aukera paregabea izan genuen. Ea aurrerantzean, bertso saio gehiago antolatu, Pasaian bertsozaleetasunak duen hutsunea betetzen jarrai dezakegun.

Bestalde, Martxoaren 15ean, Oiartzungo Amazkar tabernan 3. kanporaketa jokatu zen eta Ander Lizarralde eta Arkaitz Goikoetxeak osatutako bikoteak lortu zituen puntu gehien. Beraz, martxoaren 29an Oreretako Batasunaren elkartean, (finalean) elkarren lehian arituko diren bikoteak, Jon Martin eta Asier Bergaretxe (bikote hau Lezoko 1. kanporaketan sailkatu zen), Etxabe eta Miren Artetxe eta Ander Lizarralde eta

komikia
Joeba Antxustegietxarte



san pedro

Jaime Tejedor: "Arraina lasaitasun osoarekin jateko esango nioke kontsumitzaileari"

Martxoaren 17an altxa zen berdela harrapatzera ateratzeko ezarrita zegoen debekua. Arrantzaleek egun horretan lehendabizikoz, ordura arte galipota biltzeko erabilitako tresnak, bere ohiko lanabesez trukatu zituzten eta berdela harrapatzera atera ziren. Antxoaren kanpaina ere bidearen bueltan dago. Hori guztiagatik, eta kontutan hartuta Prestigek eragindako triskantza, Jaime Tejedor, pasaiako kofradiako lehendakariarekin mintzatu nahi izan dugu.

Martxoaren 17an arrantzaleak lehendabizikoz atera ziren arrantzara berdela harrapatzera, Prestigen on-dorioak direla eta egon den debekua altxa denean. Zuek, zein iritzi duzue egungo egoeraz?

Itsasora atera baino lehen hainbat bilkura egin ditugu itsasoaren egoeraren inguruko balorazioa egiteko. Biologoek eta zientifikoek berdelak harrapatu dituzte haien egoera aztertzeko, eta analisi guztiek erakutsi dute egoera ona dela. Hori dela eta, erabaki genuen betoa altxatzea amu bidezko arrantzarentzat. Lehendabiziko eguneko arrantza nahiko kaxkarrak izan zen, kantitate gutxikoa. Eta tainaz ere ohi baino txikiagoa. Berdela emigratzen duen arraina da, eta baliteke, arraina joan izana jada, baina oraindik goiz da hori baieztatzeko. Kosteraren emaitza ez da beste urteetako bezalakoa izango, hila-bete galdu dugulako, baina galdutako denbora nola edo hala erreperatzen ahalginduko gara. Balorazio bat egiteko goiz da oraindik, baina ziur dakiguna da itsasoa arrantza egiteko egoeran dagoela. Oraindik ez dakiguna da, arraina dagoen edo ez.

Prestigekin jazotakoa zein eragin izan dezake epe ertain edo luzera?

Hori ikusteko dago. Jadanik hazita dauden espezieak

defentsak dituzte eta horiek aurrera atera daitezke gertatutakoa gertatuta ere, baina, aitzitik, orain bi hilabete ugaltze garaian zegoen guztia, edo larbak, edo eta espeziei bizia ematen dien fitoplanktona kaltetu badira, horrek guztiak bai eragin dezake epe luzera. Gerta daiteke aurtengo kanpaina onartzeko modukoa suertatzea, baina, luzera begira, eta, kontutan hartuta aurtengo ugaltzeak kaltetuak izan direla, datoren urteetan harrapaketak murrizak izatea.

Zenbat itsasontzi atera dira Pasaiatik?

Bederatzi. Amu harrapaketan dabilzan bederatzita barkuak. Euskadi osoan, nik uste 160 barku aterako zirela. Barku gehiago aterako dira inguruzkoen kostera hasten denean. Orduan, martxoaren 31n, barku handienak aterako dira itsasora.

Antxoaren kanpaina hasterakoan Galiziatik barkuak etorri ohi dira herrira. Etortzekoak al dira aurtengoa? Nolako eragina izan ohi du hauen etorrera herrian?

Galiziarren etorrerak duen eragina nabarmena da. 96. urtean hasi ziren etortzen, eta herriko jendeak segituan igarri zuen; taxilariak, tabernariak, komertzioek... beraiekin harremanetan nago, zeren Arcachon-gaia airean da, eta beraiek gai horren parte dira.



■ Iaz Gakizia aldetik San Pedrorra etorri zen itsasuntzi baten irudia.



■ Arrain salmenta gunean edo 'Lonjan' berriz ere mugimendua hasi da.

Nik pentsatzen dut apirilaren hasierarako hemen izango direla. Hori da behintzat gure asmoa eta baita beraiena ere.

Aztiren informeez argi erakutsi dute arrainaren egoera ona dela. Aitzitik, arrantzaleek arrantzarako tresnek (sareak eta gainontzekoak) jasan ditzaketan kalteen aurrean zuen beldurra agerian utzi duzue.

Bi gauza aipatu behar dira hemen. Arraina ondo egoeta da funtsezkoena. Gu gara lehendabiziko interesatuak. Baina, batez ere inguratzeko arrantzaren kasuan, gauze egiten delako, gerta daiteke sareak bota eta galipotarekin zikintzea. Hori geratuz gero, eragindako kalteak milioi askotakoak izan daitezke. Honen aurrean, jaurlaritzarekin akordio batetara iritsi gara, ziurtatzeko horrelako zerbait gertatzekotan administrazioak barkuek jasango luketen kalteen ordainak beregain hartuko lituzkeela. Akordioa sinatuta dago.

Kalteturik suertatu diren gainontzeko komunitateetan akordioaren bat lortu al dute?

Hainbat komunitateek defendatzen dute goiz dela itsasora irteteko. Biana komunitate ezberdinetan gertaturikoa kontutan hartu behar da. Gu, galipotaren bila atera gara; galipota ez da sartu gure etxean. Galizian galipota beraien uraren barruan zegoen. Beraien urak kutsaturik daude. Gainera beraiek ez dute lortu akordiorik administrazioarekin arrantzara ateratzeko pairatu ditzakete kalteen ordainak estaltzeko. Egin duten kudeaketa txarra eta gero, normalena litzake ardura beraien gain hartzea.

Prestigen krisialdia iraun duen bitartean arrantzaleek izan duzun jarrera txalagarria izan da. Zuek, hondamendi ekologikoaren lekuko zuzenak izan zaretan

heinean, nola baloratzen duzue administrazio ezberdinek krisiaren aurrean burutu duten kudeaketa?

Galizian gertatutakoa ikusita eta hemen egindakoa konparatzea, Alemania eta Nigeria parez pare jartzea bezalakoa da. Galizian hau gertatu eta segituan, gu Eusko Jaurlaritzarekin biltzen hasi ginen. Galipota biltzera ateratzen gara Asturiaseko kostalderaino, eta galipota biltzeko besteek izan ez duten tresneriarekin abiatzen gara. Gu eztabaidak izan ditugu administrazioarekin, baina beti konponbidearen bila aritu gara. Frantziari dagokionez, argi-ilunak daude. Barkuak kendu egin zituzten. Kosteak izugarriak izan dira eta emaitzak kaxkarrak izan dira.

Administrazio zentralak, gauzak gaizki egiteaz gain, saiatu egin da gure lana oztopatzen. Esaterako, zurgapenerako itsasontzi europarrak, zeuden fuel orbanak txikitzen zituzten. Hori kalterako zen. Era berean, marinako indarrek unti handi bat jarri zuten, helikopteroekin, baina koordenada guztiak alderantziz ematen zituzten.

Gu, egia esateko, gure kostak eta Frantziako kostak garbitu egin ditugu. Hori da egia. Baina gu badakigu zertan gabiltzan, Frantziako kostaldea aberatsa delako eta gu hara joan behar dugulako arrantza egitera.

Espaniar administrazioak gauzak gaizki egiteaz gain oztopo ugari jarri dizkigu. Batetik hamarrera puntuatu beharko banuke, Madrilgo gobernari O, Xuntari O, Kantabriako administrazioa nahiko, (nahiz eta gu mugiarazi behar izan genuen) eta Eusko Jaurlaritza eta gure arteko koordinazioari ongi.

Euskal Flota prest ageri zen Galiziarra joateko galipota biltzera baina interes ezkutuengatik ez zen aurrera atera eta nik uste positibo izan zitekeela.

Jendea harrিতa gelditu da jaso ditugun galipota tonak kopuruarekin.

Arrain kontsumitzaileari zein mezu igorriko zenioke?

Nik egunero jaten dut arraina. Hori da adibiderik adierazgarriena. Gainera, argi dago, arrantzalea dela kalitatean interes handiena duena, jakin dakigulako zer den jokoan dagoena: arazoren bat suertatzea zentzu horretan gure heriotza litzateke. Gure ardura itsasoa garbitzea izan da, arraina behar den baldintzetan egon dadin. Ez ahaztu, momentu honetan, arrain deskarga guztiak kontrol ezin zorrotzagoekin egiten direla. Arraina lasaitasun osoarekin jateko esango nioke kontsumitzaileari.

Eta arrantzaleei?

Arrantzaleari, egoera hau gehien sufritzen ari direnei, zera esango nieke; denbora emateko, baina lasai egoteko, itsasoa delako erraztasun handienarekin birgaitzen den ingurunea.

jar ezazu
zure
iragarkia
Brankan


HAUXE BAI DELA
MAUKA
POZ BETE ETA GOIA
ZERUKO BODEGOIA
SAN PEDROK HEMEN
DAUKA
San Pedroko Bodegoia

MUGURUZA ARDOAK
ARDOEN
ETA
RIBEIROEN
SALMENTA
hamaiketakoak
eta
meriendak
Torreatze kalea 8, behea 20110
Pasai San Pedro Tel.:943 39 49 44

antxo

Usozoko orubeak badu proiektua

Antxoren etengabeko aldaketa ikusgarriaren barruan, pasaden martxoaren 12an ospatu zen udalbatza berezian Pasaiako Udalak Usozoko oruberako proiektuaren expedientearen hasiera emango da. Hona hemen, iruditan, expediente horrek zertan datzan.



Ez zen, ez, eztabaida faltarik izan talde politikoen artean gure barrutiko zonalde garrantzitsu baten inguruan martxoaren 12an izan zen udalbatza bereziaren baitan. Hala ere, bozketa onodren Usozoko orubearen proiektuaren expedientea gauzatzeko erabakia hartu zen. Bertan, aurreikusitakoaren arabera, 2 kirol pista eraikiko dira, ikastetxe batez gain (erabakitzeko dago nork hartuko duen ikastetxe horren ardura). Hauen azpian, 4551 metro koadro izango lituzkeen ibilgailu aparkaleku bat eraikiko litzateke, 177 aparkaleku plaza izango lituzkeenak. Zaila da esatea noiz hasiko diren lanak Antxoko zonalde garrantzitsu honetan, oraindik proiektua bera ere ez baitago onartua, honen inguruko expediente bat abian jarri den arren. Horrela, mahai gainen aurkeztu zen proiektuan barrutiak dituen hiru gabezi konponduko lirateke: aparkalekuarena, kirol instalakuntzarena eta aisialdirako zonaldearena.

Hilketa Eskalantegi kalean



Pasa den martxoaren 19an, arratsaldeko 14:30ak aldera, pertsona bat hilik suertatu zen beste batek eragindako labankadaren ondorioz. Hainbat lekukoek adierazi dutenez, bi gizonetxoek, ijitoak biek, errietan ari ziren momentu batzuk lehenago. Zauritutako gaztea, 22 urtekoa, ospitalera eraman zuten baina bertan ezin izan zuten ezer egin bere bizia salbatzeko. Polizia hiltzailearen bila dabil. Branka aldizkariaren erredakzio itxeko momentuan ez zegoen gertakari

honen inguruko berri gehiagorik.

Aurrera doaz lanak

Hala da, aurrera doaz gure barrutian martxan dauden lanak. Hala, azoka pixkanaka-pixkanaka itxura ahortzen ari da, kanpalkaldea margotzen hasi baitira. Barrukaldetik ere gauzak martxa honean doaz: beheko solairua eta goikaldekoa batuko dituen metalezko eskailera jarri dago, igogailuarekin batera. Beheko solairuko gelak ere pixkanaka itxura hartzen ari dira, eta horrela 18 metro koadro izango dituzten 6 gelak ia bukatuak dau-

dela esan daiteke.

Azokaren atzekaldearen (margaltara ematen duen aldea) urbanizazio lanak hasi dira. Honek Gelasio Aranburu kalearen mozketak ekarriko du zenbait astez, eta automobilerik Hamarretxeta kalera jo beharko dute antxotik atera nahi izanez gero.

A-8 autobidea eta N-1 errepidea batuko dituen bariantean ere aurrerapausuak ematen ari dira: horrela Kaputxinosera bidean zeuden lantegiak bota eta gero, bertan behin-behineko errepide bat egin da. San Markos bidetik dagoen Antxorako sarrera ere zenbait egunez moztua egongo da ere, ibilgailuek Beissier zenaren gainetik eraiki den errepide batetik sartu beharko dute antxora



br-36

10

BARRUTIZ-BARRUTI

br-36

11

BARRUTIZ-BARRUTI

RADIO DONOSTI DONOSTI IRRATIA

betiko musika

RADIO DONOSTI DONOSTI IRRATIA

majestik

Oarso 13, behe esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
WEB: <http://www.iturgaiz.com>
E-mail: majestik@iturgaiz.com

PITXI TXULO
JATETKEA-TABERNA

EGUNEKO MENUAK
ETA
KARTA ZERBITZUA

Eskalantegi, 118
Tfn: 943 520 770

Molinao Anzoa
PASAI ANTZO

AMIO
Taberna

1934

Gure Zumardia, 27-20110-Pasata (Gipuzkoa)

URTXINTXA BULL

URTXINTXA BULL, S.A.
Gipuzkoako English Mark Darts operadoreak

Gure Zumardia 13, behe Pasai Antxo. Tel. : 518527

Bar Goierri

C/ Eskalantegi, 36 - Tel. 943 51 00 19
PASAI ANTZO

MIMOS TABERNA

tel.: 943 51 85 27
Pasai Antxo

trintxerpe

SASTAKAI, 10 urte kaleak alaitzen

10. urtebetetzea aitzaki hartuta, Sastakai txaranga trintxerpetarrarekin hitzordua jarri eta "brava" batzuen bueltan, orain arteko ibilbideaz, txarangen egoeraz... solasean aritzeko aukera izan dugu; hona hemen emaitza:

Sastakai; sastagai (Elhuyar): esku-arma laburra, bi ahokoa eta punta zorroztua; TAUROM: korridetan, erdi hila dagoen zezena errematatzeko erabiltzen den arma. Zergatik Sastakai?

Ez dauka esanahiarekin lotura. Txaranga sortu genuenean, izena jarri behar zitzaioela eta ezer hoiberik bururatu ez zitzaigunetz, orduan ikastolako euskarako klase batean aztertu genuen testu batetik ateratako hitza da. Esanahiari baino, soinuari begiratu genion. Gustatu egin zitzaigun eta kitto.

10 urteko ibilbidea egin duzue; egin balorazio motz bat: Talde polita sortu dugu, giro oso ona duena. Azken 3 urteotan gainera talde nahiko egonkorra da eta horrek giroa hobetzen laguntzen du, horrela beste 10 urte jarraituko genituzke; gustura!

Galdera tipiko bat: aktuazio onena eta txarrena.

Onena Briviescan (Burgosen) egindako edozein, urtez urte gainera hobera doaz. Txarrena(k) (hemen iritzi desberdinak daude) orain urte batzuetako danborrada bat; dianaren bat; inauterietako emanaldiren bat. Erantzun diplomatiko bat ematearren, esango dugu ez direla berez txarrak, eguraldiak, norberaren egoerak... baldintzatzen dituela.

Bitxikeriaren bat:

Beste txaranga guztietakoek asko ligatzen (omen) duten arren, gure txarangaok ez dugula batere ligatzen. Egia da hala ere, gero beste txarangen batekin "mertzenario" zuzenean, ordun ere ez dela ligatzen, beraz... Eta serio, Arrasateko eroetxean egindako emanaldi bat.

10 urtetan lau entsegu leku izan dituzue. Traba egiten duzuela esango luke edozeinek.

Bueno, bueno, lehenengoa (arrandegi kalean) bota egin zuten, egia da bigarren eta hirugarrenetik bota egin gintuztela (atea silikonatu...), eta orain gauden honetan (Azokan) eutsiko dugu trafikoko multek (bertan gorde-



tzen dituzte Udaltzainek) jaten ez bagaituzte behintzat.

Zer eskaini diozue Pasaia ibilbide honetan?

Alaitasuna. Festak txaranga gabe desberdinak dira. Musika egiteko beste modu bat da. Horrez gain, herriaren izena beste toki batzuetara eramatea, eta garrantzitsua dena, txarangeroen "harrobi" txiki bat.

Eta zer eskatzen diozue?

(barreak) farolak, lorategiak,... eta serio, festetarako gu deitzen jarraitzeko.

Une honetan guk dakigula bi txaranga zaudete Pasaian, Pasai eta zuek. Alternatiba gaztea zaretela esan daiteke, horri eutsiko diozue edo urte batzuen buruan beste Pasai bat izango al da zuena?

Interesgarriena bi eskaintza egotea da. Desberdina da biok egiten dugun musika eta txaranga ulertzeko modua. Urteak betetzen ditugunean beraz ez gara Sastakai izango, une bakoitzean zure gustuei dagokiena egin behar duzu.

Sorreratik, gutxi gora behera, beti izan da neskarik zuegan, baina beti gutxiengoan. Orain ere 12tik 2 besterik ez. Txarangen mundua "gizonentzat" egina al dago?

Txaranga gehienetan gertatzen da (fanfarreetan ez hainbeste) eta instrumentu motarengatik izan daiteke. Saxoaren bidez bakarrik iristen dira.

Hori musika eskolentzat mezu izan daiteke?

Kulturala den heinean aldatu daiteke, eta aldaketa norbaitek bultzatzekotan, zalantzarik gabe musika eskolek egin dezakete. Ohituraz instrumentu gogorrak (tuba, bombardino...) mutilek jo izan dituzte, eta neskek fina-goak direnak, baina horrek ez du esan nahi horrela izan behar duenik. Eredu berriak eskainiz gero...

Ba al dago "txarangero" prototiporik? Zeintzuk dira ezaugarri nagusienak?

Hori topiko bat da. Txangero bihurtu zaitezke txaranga zure bizimoduaren ardatz egiten baduzu. Hobby bat izan behar du. Ezaugarriak..., instrumentua jotzea gustatzea, jaiak gustatzea. Hauetan parte hartzeko beste modu bat da.

Festazalea, beraz, izan behar da. Ba la duzue txarangan festa gustuko ez duen infiltraturen bat?

Argi dago denek ez zaigula dena gustatzen, eta agian batzuk beste zerbaitek mugiaraziko ditu, diruak, txarangarekin zuen konpromisoak... Baina argi dagoena da al den eramangarriena egin behar duzula, egiten duzunarekin ongi pasatzen jakin behar da (lanean bezalaxe).

10. urteurrenako ospakizun ekitaldi berezirik?

(tentsioa) Bai, ez, ez, bai... Arropa berria erosi dugu, eta bueno afari bat egin beharko dugu txarangatik urte hauetan pasatako guztiekin (eta orain idatzia dago).


Branka gonbidatuta dago?

Bai (eta hau ere idatzita dago).

Besterik edo brankarentzat galderarik?

Nondik dator Branka izena? (hau lehenengo galderarengatik gelditu zaien pataletaren erantzuna da). Ah, eta Txaranga patrozinatuko zenigukete? Mila esker.

Trintxerpeko Kar-mengo gure Amaren elizaren 50. urteurrena



Trintxerpeko elizak 50 urte beteko ditu aurten, uztailearen hamaseian hain zuzen. Trintxerpeko herriak eta, bereziki, kristau-elkarteak badu, beraz, zer ospatu. Izan ere, berrogeita hamar urteotan eliza bilgune garrantzitsu bilakatu baita trintxerpetar garenontzat. Hamaika izan dira bertatik sortu diren ekimen eta kultur ekintzak. Hamaika bilerak eta kultur ekintzak. Eta ez bakarrik kristauei begirakoak. Erreferentzia bilakatu izanak sekulako poza eragin die parrokiako komunitateko kide guztiei.

Bada kezka bat, ordea. Berrogeita hamar urteotan, elizaren fatxada ez da sekula birgaitua izan. Eraiki zuten bezalaxe jarraitzen du eta dagoeneko bere egoera kaxkarrak eta horrei itsatsitako zikinkeria begi bistakoa da. Horrexegatik parrokiako komunitateak erabaki zuen bazela garaia elizaren birgaitze lanei ekiteko. Erabaki eta egin.

Kontua ez da erreza izango, baina.

Elizak aurpegiaren garbiketa txukun bat baino zertxobait gehiago behar baitu. Paretek eta adreiluek tratamendua behar dute. Beirate eta arrosaleihoak konpondu behar dira. Dena garbitu eta dena pintatu. Uste baino zailagoa izango da. Eta oso garestia... Guztira, lau aurrekontu eskatu zituzten. Enrique Aizpuru arkitektuaren laguntzaz egokiena aukeratu zuten, "Restauraciones Gorka" enpresaren aurrekontua hain zuzen, zeren baldintza tekniko guztiak betetzeaz gain, elizak aurrekusten dituen baliabide ekonomikoaren barruan sartzen baita. Baina, hala ere, 150.000 eurotik gora ordaindu beharko dituzte (25 milioi pezeta inguru)

Lan handi honi ekiteko Trintxerpeko parrokiak diru mordoa beharko du eta 48.000 _ inguru bildu baditu ere, gehiago beharko du. Horrexegatik "Parte bazara parte har ezazu" kanpainari ekin dio behar duten dirua biltzeko. Kanpaina honen bidez, trintxerpetar guztiengana iritsi nahi dute, denon laguntzaz Trintxerpeko irudiarekin estu lotuta dagoen eraikin garrantzitsu honen konpontze lanei aurregin ahal izateko.

ZEURE LAGUNTZA BEHAR DUGU

Lagundu nahi duen orok hiru era ezberdin erabil ditzake.

1. dirua parrokiaren bertan utziz.
2. "Fatxadaren aldeko" bost urteko kuota ordainduz. Horretarako elizaren bertan emango dizuten orria bete besterik ez dago.
3. Laguntza honako bi kontuetan sartuz:

KUTXA:

2101.0003.07.000678190.0

EUSKADIKO KUTXA:

3035.0010.89.010.001546.7

Lanak hasiak dira jada eta ekainaren bukaera bitartean iraungo dute. Horrela, uztailearen 16an, 50 urte betetzen dituen egunean, Elizak bere aurpegiarik politena erakutsi ahal izango du.

Eta denon laguntzaz bada, askoz hobe.

Takolo, Pirritx eta Porrotxen 'Katxiporreta' Trintxerpen

Apirilaren 12an, Abaraska Euskara



Elkarteak antolatuta, Takolo, Pirritx eta Porrotxen ikuskizun berriaren, 'Katxiporreta'ren, emanaldia egingo da Trintxerpeko Frontoian arratsaldeko 18:00etan. Gurasoei eta hauen seme alabei euskarazko aisialdia eskaintzeko asmoz iritsiko dira pailazoak gurera eta horretaz gozatzeko aukera 5 euroren truke izango du nahi duenak. Sarrerak, martxoaren 28az geroztik salgai egongo dira Donibanen, Patxikun; Antxon, Kamion; San Pedron, Boteron eta Trintxerpen Dax eta Abaraska Euskara Elkartearen. Ikastetxeetan ere eskuratu ahal izango dira.

Korrika 13

AEKrekin herri bat geroa lantzen



Korrika 13.na, euskararen aldeko jarrerak suspertu eta euskaltegi zein gau eskoletarako dirua biltzeko xedez, Euskal Herri osoan egiten den euskararen aldeko ekitaldi bakarra, aurtengo edizioari ekitekotan da. Hamar egunez, gau eta egun eta etenik gabe, 2100 kilometro baino gehiago egingo ditu Korrikak, eta lasterketan Euskal Herri osoko adin eta mota guztietako pertsonak parte hartuko dute.

Korrika bi urtetik behin antolatzen da, eta edizio bakoitzean pertsona bat omendu ohi da. Aurtengoan, pertsona bat omendu baino, 60. hamarkadaren amaierako eta 70. hasierako mugimendu

egiten dugun lanaren baitan dagoela gizaritari gogorarazteko. Korrikaren antolatzaileek gogoratu dutenez, euskara normalizatua beharrezkoa dugu eta, horretarako, beraien ustez, bi gauza dira funtsezkoak: alde batetik, euskararen ofizialtasuna, hau da, euskara eta gainontzeko hizkuntzekiko parekotasuna ziurtatzea, euskaldunon eskubideak bermatzea eta euskararen lurralde osoan eta arlo guztietan behar duen tokia aldarrikatzea. Eta bestetik, transmisioa ziurtatuko duen hizkuntza politika bultzatzea helduen euskalduntzea duen garrantziaz ahaztu gabe.

Korrika 13.na. Mauletik abiatuko da, apirilaren 4an, arratsaldeko 16:30etan, eta gurerera, Pasaiara Hurrengo egunean iritsiko da. Aurtengoan asteburuan iritsiko zaigunez lasterketa ekitaldi ugari antolatu dira gure barrutietan. Hona hemen horiei buruzko informazioa:

ORDUTEGIA

Aurtengoan Korrika lehenengo aldiz bere kaleetatik ikusiko duen barrutia Donibane izango da, haraino Apirilaren 5ean, larunbata iritsiko baita hian zuzen ere, 21:51tan (Iberdureora). Donibaneko kaleak zeharkatu ondoren, eta ohiturari jarraikiz, arraunlariek eramango dute lekukoa San Pedroraino, bertara 21:58tan iristeko asmoz. Hortik Trintxerpera (22:05), eta Eskalerillastik Antxora iritsiko da Korrika, 22:34tan antolakuntzak eman digun ordutegiaren arabera. Antxotik bira eman ondoren, Donostia aldera joango da Korrika.

KORRIKA KULTURALA

Korrika 'fenomenoa' ez da bakarrik herri bakoitzetik pasatzen den unera mugatzen. Euskal Herriko herri guztietan bi urteroko lasterkaldiari babesa emateko hainbat eta hainbat ekitaldi antolatzen dira. Pasaiari dagokionez, hauxek dira az-

pimarragarrienak:


- martxoak 28: bertso-afaria Antxoko Pitxi-Txulo jatetxean, Irazu eta Maialen Lujanbio bertsolariekin.
 - apirilak 4: Iker Goenaga trikitilariaren diskaren aurkezpena 19:30tan Antxoko Kultur Etxean. Egun berean Korrikaren aldeko Bingoa ospatuko da Kamio tabernan, 22:30ttik aurrera.
 - apirilak 5: egun hau izango da Korrika Pasaiara iritsiko dena. Barruti guztietan antolatuak daude afari-meriendak zein barrikoteak
- Honekin batera, barrutietan Korrikaren materiala salgai jartzeko asmoa dago.

KORRIKA TXIKIA

Gazteenek ere izango dute Korrikaz gozatzeko aukera. Horrela, apirilaren 4ko goizean barruti guztietan Korrika Txikiak antolatuko dira, bertan Pasaiara-Lexo Lizeoko, Karmengo amako zein La Anunciatako 1000 haur inguruk parte hartuko dutelarik



bat gogora ekarri nahi izan da: ez dok amairu! mugimendua, hain zuzen. Mugimendu hark izugarritzko eragina izan zuen euskal kulturaren berripikundean. Literaturan, kantagintzan, arte plastikoan, euskararen aldeko mugimenduan... ez dok amairu! Mugimenduaren izpirituak erein zituen gerora denok ezagutu ditugun fruituak. Eta hori dela eta, AEK-k aurtengoan, izpiritu harri heldu nahi izan dio, euskararen geroa gaur egun



Zer iruditzen zaizu Euskal- dunon Egunkariarekin ger- tatutakoã?

Egoera honen aurrean zer ušte duzu egin behar dela?



1 Pablo Maidagan.
38 urte. Irakaslea.

Euskararen eta Euskal Herriaren aurkako beste eraso bat dela. Denok elkartu eta erantzun gogorra eman behar dugu, baina ez bakarrik arlo honetan, gainontzekoetan ere bai.

2 Mari Karmen Lasa.
62 urte. Etxekoandrea.

Oso gaizki iruditzen zait, ez dago eskubiderik. Azkenean pegatina bat jarriko digute ahoan. Non daude politikoak honi erantzuna emateko?

3 Eneka Lujanbio.
27 urte. Irakaslea.

Astakeri bat, bidegabekeria bat eta Euskal Herriaren aurkako eraso zuzena. Honen aurrean uste dut planto egin behar dugula, aski da esan, aurpegia eman eta fronte egin.

4 Peñagarikano.
43 urte. Irakaslea.

Oso gaziki. Orain dela 13 urte kosta zena-
rekin! Hor ibili ginen herriz herri martxan
jartzeko. Adierazpen askatasunaren kontrako eraso bat da. Betetzen ditu baldintza guztiak esateko zer ez den egin behar, berez, demokrazia batean bizi baldin bagara. Hilabetea oso bat pasa da eta gaitzespenak eta horiek ondo daude, baina orain egin behar dena beste bat martxan jarri. Berehala gainera. Herri batzordeak antolatu, eta hasi. Herri honetan beti diru eske ari gara, baina hori da tokatu zaigun destino petrala eta ez dago besterik.

5 Jose Luis Meaño.
51 urte. Irakaslea.

Oso gaizki. Egia esan, ez da bat ere erraza. Denok indarrak batu, eta, nolabait aurre egin egoera honi. Niri gustatuko litzaidake, berriro Egunkaria bezalako egunkari bat kaleratzea.

6 Ismael Gomez.
35 urte. Tabernaria.

Argi dago gobernuaren estrategia bat dela txapapotearekin zein gerrarekin gertaturikoa ezkutatzeko. Barrabiletatik zintzilikatze modukoa da, baina hori zin denez, protestatu egin behar da. Hori da gelditzen den bakarra.

7 Jone Izulain.
43 urte. Irakaslea.

Oso gaizki iruditzen zait. Orain arte izan dituen helburu berdinekin egunkaria berriro ateratzen saiatu behar gara denak.

8 Oscar Gomez.
25 urte. Banatzailea.

Gaizki. Tinko mantendu behar dugula uste dut, eta beste egunkari bat aurrera atera behar da.

9 Iratxe Iriberrí.
28 urte. Tabernaria.

Euskal gizartearen aurkako eraso bat. Kaleratzea atera behar dela uste dut, hain zuzen egiten ari garena. Uste dut indarra eman go digula denok elkarrekin egoteko.

10 Eider Arbillaga.
20 urte. Ikaslea.

Ez da Egunkariaren aurkako eraso soilik, Euskal Herriaren aurkakoa izan da. Hasi-
ran ezker abertzalearen aurka, gero Egunkariaren aurka eta gero auskalo... Ikastolak...

Herriak Egunkariarekin eman duen erantzuna eraso guztiakin izan beharko luke. Herria eraikitzen jarraitu behar dugu nahiz eta zapaldua izan, aurrera jarraitu behar dugu.

11 Iker Erauskin.
26 urte. Langabetua.

Gaizki. Euskararen aurkako ekintza bat da. Dauden bezala, gutxi dago egiteko, baina behintzat protestatu eta ia gobernuak horrela kasu egiten duen.

12 Olga Celemín.
39 urte. Irakaslea.

Alde batetik gaizki iruditzen zait, euskararen alde egiten ari den guztia oztopatzen dutelako eta uste dut gauza batzuk zerikusirik ez dutela. Orain arte egiten ari dena egin beharko litzatekeela uste dut: manifestatu.

Idoia, Maialen eta Edu Euskaldunon Egunkariako derri-gorrezko kaleratuekin solasean

TESTUA OLATZ MITXELENA ARGAZKIAK BRANKA



Elkarrizketa honetan, Pasaiko Euskaldunon Egunkariako langileak izan ditugu solaskide: Idoia Astarloza, Edu Lartzanguren eta Maialen Briz. Hiruek Egunkarian lan egiten zuten pasa den otsailaren 20ra arte. Zorigaiztoko egun hartan, guardia zibilak, Juan del Olmo epailearen aginduz, Egunkaria itxi zuen. Orduz geroztik, beraien izenak langabetuen zerrendetan ageri dira. Horrelakoetan gertatzen den bezala, hilabete amaieran poltsikotan hautsa da nagusi; baitzik, langabetu hauek ez dute hartu eguzkitan etzateko parada. Izan ere, Egunkaria itxiko zutela jakin bezain laster lanari ekin baitzioten, Eguneroaren lehen aleak zioen mezua Euskal Herrian barna barreiatuz: "Itxi bai, isildu ez". Egunkariaren aurkako operazioaren zuzeneko hiru kaltetuen testigantzak eta hausnarketak topatuko dituzue elkarrizketan.



Zein zen zuen egitekoa Euskaldunon Egunkarian eta noiztik ari zineten bertan lanean?

Idoia Astarloza: ni komertziala nintzen. Publizitate saltzailea Donosti aldean. 1991ko irailaz geroztik aritu naiz horretan, eta operazio gertatu zenean amatasunagatik bajan nengoan. Nire bikoteak ere Egunkarian lan egiten du.

Maialen Briz: Ni telefonista izan naiz hamahiru urtez, sorrera egunetik itxi arte.

Edu Lartzanguren: nazioarteko sailaren kazetaria nintzen. Ia hiru urte egin ditut bertan.

Nola izan zenuten guardia zibilak Euskaldunon Egunkariaren kontra burutzen ari zen operazioaren berri?

IA: Irrati bidez, goizeko 06:00etan. Iratzargailu bezala erabiltzen dugu irratia. Albistea entzun eta harrিতuta gelditu nintzen. Zaila da azaltzea momentu horietan sentitzen dena: albisteez zioten egunkarian sartu zirela eta atxilotu zituztela ez dakit zenbat lagun...ni zuria gelditu nintzen;



asimilatu gabe. Jaiki, jantzi eta hara hurbildu ginen gertatzen ari zena jakin nahian, ordura arte berri gutxi genituen eta.

MB: Ni gosaltzen nengoan lagun bat etorri eta dena kontatu zidanean: guardia zibila Andoainen zegoela, beste delegazioak ordurako itxita zeudela, eta atxilotetak zirela: nik ere sinistu gabe, lehenbailehen gosalduta eta egunkari hainbat lagunei hots egin nien jakiteko zer plan zegoen. Andoainera joan ginen gertatzen ari zena sinistu gabe eta oraindik ere berdin jarraitzen dut; ezin sinisturik. Euforia momentuak izan ziren; pelikula baten antzera bizi nituen momentu haiek.

EL: Nik ez nuen erreakzionatu. Jaiki nintzen egunero bezala 08:00etan klasera joateko eta albistea orduan

entzun nuen. Neska iratzarri nuen, kontatun gertatutakoa, baina hala ere jarraitu nuen prestatzen klasera joateko. Neskak esan zidan: - baina zu gaur ezin zara klasera joan! . Hori entzundakoan erreakzionatu nuen eta zuzenean Andoainera joan nintzen.

Otsailaren 20az geroztik, zein da zuen egoera eta zertan aritu zarete?

IA: Printzipioz langabezian eta paroa kobratzera. Badirudi ez dela arazorik egongo epe motz batean paroa kobratu ahal izateko. Laboral-

«MANIFESTAZIO HORRETAN EGON DIRENEN LAURDENAK EDO EROSIKO BALU EGUNERO EGUNKARIA EZ GENUKE DIRU LAGUNTZAREN BEHARRIK IZANGO»

ki, publizitate arloan sare bat eratuta zegoen, eta hori desagertu egin da, ez dagoelako lanik. Beraz, oraingoz, harpidetzak egiten nabil. Badago jende bat bere ohiko



jardunean jarraitzen duena, baina ez da nire kasua.

MB: Ni telefonoan hasi nintzen, jende asko deitzen zuelako harpidetzak egiteko, eta harpidetzak egiten pasa nuen astebete. Gero esan zidaten erredakzioa martxan hasiko zela Hernanin eta orduz geroztik telefonistak beharko zirela. Orduan nire betiko jardunean hasi nintzen; telefonista. Bitartean paroa kobratu ahal izateko tramiteak egiten dihardute abokatuek.

EL: Orain web orri berrirako lanean nabil, www.aurrera.net:ri. Hor daukagu Egunkariaren inguruko ia-ia material guztia, zazpi hizkuntzetan. Bisitatzeko oso orrialde interesgarria da.

Horretan ari naiz buru belarri eta tarteka baita ere gauzak egiten Egunerorako; elkarrizketak egiten edo gauzak idazten. Lehen, nazioarteko sailaren batz bestekoa bost sei orri izaten zen, eta orain askoz jota bi izaten dira. Beraz, saileko bi kazetari web

orrialderako lanean hasi gara ikusten genuelako ezinbestekoa zela nazioartean historia hau mugitzea. Lehendabiziko bi asteak horretan eman genituen, posta elektronikoko bidez informazioa bidaltzen mundu osora. Gerora ikusi zen garrantzitsua zela web orrialde bat martxan jartzea eta Kontseiluak hartu zuen horren ardura. Orain gure funtzioa ez da hainbeste informazioa igortzea, baizik eta jendeari jakinaraztea informazio guztia www.aurrera.net orrialdean eskura duela.

Nazioartera begira egindako lana hasi al da fruituak ematen?

EL: Hasieran oihartzuna kaxkarra izan zen. Alemanian gehiago entzun zen, baita Erresuma Batuan ere. Frantzian konspirazio argi bat egon zen gaia isilarazteko. Baina orain, zabaltzen hasi da. Lehengoan Time-en bi orrialde eskaini zio-

ten gaiari, eta Time-en bi orrialde asko da. Hasi da mugitzen eta igartzen da; kanpoko jende asko etorri da Martxelo elkarrizketatzera. Hala ere eskandalagarria da. Horiek etortzeko eta arreta pixka bat jartzeko tortura tartean egon izana beharrezkoa izan da. Egunkariaren itxierak ez zuen berez lortuko izaten ari den oihartzuna.

Langileak izan zarete, besteak beste, operazio honen kaltetu zuzenak. Nolako giroa dago egun zuen artean eta nola uste duzue eragingo duela honek guztiak zuen kolektiboan?

IA: Orokorrean, nire irudipena da lan egiteko gogo asko dagoela. Lehenengo erreakzioa hori izan da: ilusioa egoera hau gainditzeko, martxan jarraitzeko, eta, lanean segitzeko gogo.

MB: Ados nago. Pizgarri moduko bat izan da historia honi buelta emateko.

EL: Niri harritu egin nau. Nik espero nuen erreakzio hau bi aste-

ko beroaldia izango zela, eta ondoren segituan hika-mikak hasiko zirela. Baina ez da hala; han gaude lanean, itxita egon ez balitz bezala, kobratzen egongo bagina bezala. Horrek erakusten du Egunkarian dagoen jendea profesionala dela. Eta naiz eta kendu diguten gure tresna, jendeak berdin jarraitzen du bere lanean. Gainera jendeak ikusten du kanpoko begiradak guregan zuzenduta daudela eta ardura bat ere bada: hau aurrera atera behar dugu jende guztia zain dagoelako. Jendea gogoz ari da.

Nola baloratzen duzue euskal gizarteak Euskaldunon Egunkariaren itxieraren aurrean erakutsi duen jarrera?

IA: Herriaren erantzuna izugarria izan da. Ardu- ra dutenen erantzuna, aldiz, ikusteko dago. **MB:** Nik ez nuen espero horrelako erantzunik. Uste



nuen bakarrik egongo ginela.

EL: Erantzuna ikaragarria izan da: Manifestazioan ikusi zen zelako sostengua zegoen. Hala ere horren alde iluna momentuko beroaldi hori nola gauzatzen den ikustea da, egunkariarekiko laguntzan, edo jendea gehiago erosten ote duen... Jende guztiak aipatu duen adibidea aitatuko dut: manifestazio horretan egon direnen laurdenak edo erosiako balu egunero Egunkaria ez genuke diru laguntzaren beharrik izango. Bestalde, ere, poza, harpidetza asko egin direlako, eta, zenbat jendek, ordura arte El Diario Vasco irakutzen zuena, Egunerok erosten hasi delako.

Orain euskara hutsezko egunkari berri bat martxan jartzea da xede nagusia. Proiektu berraren inguruan zer aurreratu daiteke?

EL: Deus. Batzuk horrekin lanean dabilta baina oraindik ez da ezer ezagutzen. Gure hurrengo urratsa da Egunerok 32 orrialde iza-

tea, hau da Egunerok izango ditu Egunkari jai berriak zituen orri haina. Nahiko sinbolikoa da. Lau asteetan lortu da eta horrek ikasgai argia ematen du: zer du garrantzia horrelako proiektu bat ateratzeko? Pertsonal taldea. Ordenagailu onekin edo txarragoekin, lokal handia edo txikiagoekin, lana egiten da, baina jendea da balio duena.

Zuen ustez, zein paper jokatu beharko lukete instituzioek proiektu berrian?

EL: Nik Euskal Herrian ditugun politikariek beldur handia diet. Hasi dira esaten proiektu berria zabalagoa egin behar dela. Egunkaria itxi aurretik Sabater atera zen elkarrizketatua. Ia El Paisen noiz ateratzen den Otegi edo horrelakoren bat: Inoiz ez! Nola egingo dugu Egunkari zabalago bat? Beraien "zabala" horrek guk kontrolatutako

egunkaria esan nahi du, hau da, orain dela 13 urte lortu ez zutena, beraiek egin behar zuten komikia antzeko Egunkari harrekin, orain egin nahi dute. Hasi dira ahotsak altxatzen eta beldur handia diot nik horri, ahul harrapatzen gaituztelako orain. Egunkaria inoiz baino indartsuago zegoen baina utzi gaituzte ezer gabe. Horregatik azkar jokatu behar dugu eta herritarren laguntza ezinbestekoa dugu. Denak dakigu politikoki kontrolatutako Egunkari batek ez lukeela inolako arrakastarik izango.

MB: Nik uste dut lagundu egin behar dutela baina interferitu gabe. Muturra sartzen badute proiektua suntsitu egingo dute. Hor ikusiko da

benetan zer nahi duten, proiektu hau lagundu edo oztopatu.

IA: Izan beharko luke, orain arte izan den bezala, jende berdinarekin, eta ildo beretik, eta beraiek lagundu nahi badute ekonomikoki lagundu behar dute.

Pasaian egunkariaren aldeko herri batzarrak eratu berri dira. Zein beharko luke, zuen ustez, batzar hauen egitekorik nagusia?

IA: Nik uste dut harpidetzak egitea dela orain helburu garrantzitsua. Egunkariarentzat harpidetzak berme bat dira, horien baitan dakizulako egunero egunkariaren kopuru zehatz bat salduko duzula. Helburu nagusia harpidetzak lortzea da.

1000 harpidetza berri lortu dira eta orain 2000rako bidean goaz. Manifestazioan erakutsitako jarrerari segida ematen dion konpromisoa harpidetza da. Horrek ematen du sostengua.

Euskal esparru komunikatiboa eratu beharraz maiz hitz egiten da. Egoerak, baina, ez du bat ere laguntzen, ezta?

EL: Euskal Herriak kontsumitzen dituen hedabi-




deek eta gero herritarren iritzia ez datoz bat; gehiengo abertzale eta euskaltzalea da eta gero Diario Vasco bezalako egunkari espainolak irakurtzen dira. Eta zer esanik ez telebista eta besteak. Horri nola aurre egin?

Nik uste dut herri aldizkarietatik egin beharko litzatekeela. Beste biderik ez dugu ikusten. Guk ezin dugu antolatu halako medien inperio handi bat Correo taldeak edo hauen antzera; ezin dugu eta ezingo dugu inoiz oso arrazoi sinplearengatik; gutxi garelako. Aukera bakarra tokian tokiko komunikabideak dira. Egunkariak berak ere hori bultzatu behar du; adibidez Tolosan, Egunero martxan jartzea oso garrantzitsua izan da. Tokiko hedabideen bidez euskaraz irakurtzeko zaletasun hori sustatuko egiten da eta behin jendeak euskaraz irakurtzen ohitzen denean, errazagoa da jendeak Egunkaria irakurtzea, adibidez.

Pello Zubiria askatu eta gero, hiru lagun gelditzen dira kartzelan: Iñaki Uribe, Xabier Alegria eta Xabier Oleaga. Noizko espero dituzue etxean?

Lehenbailehen. Hemen proiektu berri bat martxan jarri behar da, eta pertsona horiek kalean behar dute proiektu horren parte izateko, lehen



izan ziren bezala.

Euskaldunon Egunkariak 13 urte egin ditu kalean eta zuek euskarazko prentsaren historiaren zati garrantzitsu horren lekuko zuzenak izan zarete hasieratik. Jabetzen zarete horretaz? Nola gogoratzen dituzue sorrera garaia?

MB: Nik gehiago orain, itxi egin dutenean. Egunerokotasunean, zaila da jabetzea.

EL: Orain ikusi da jarrera asko aldatu egin direla: Egunkaria sortu zenean, Joseba Arregi zegoen jaurlaritzan eta horrek nahastu zuen giroa, jaurlaritzaren euskalgintzako talde ororen kontra jarri; beraiek kontrolatzen ez zutena, etsaitzat har-

utzen zuten. Beraiek ez zuten uste Egunkaria aterako zenik. Eguna izeneko egunkaria ateratu egin zuten, debalde banatzeko asmoz, ez zutelako uste jendeak erosiko zuenik. Gero, azken urteetan, aldaketa eman da. Ikusi zuten, etsai jarrera horrekin kalte egiten zutela eta harremanak normaltzeko beharra zegoela. Gure irizpide bakarra, irizpide profesionala da. Egunkari bat edo independentea da edo ez da egunkari bat. Izango da panfleto bat. Horregatik, ez da gure kapritxo; independente izatea ezinbestekoa da.

IA: Egunkariaren sorreraren garai hartan Egunkaria beraiek kontrolatu nahi zuten. Kontrol hori ez zuten lortu ez genuen beharrezkoa genuen laguntza hori jasotzen. Tira-bira hori zen. Ikusi dutenean, beraien laguntzarik gabe, hala ere aurrera ateratu dela, gehiago zabaldu dira beraien ere.

Nola ulertzen duzue Euskaldunon Egunkariaren gertatutakoa?

EL: Honekin guztiarekin, beraien mezua argia izan da: zuek egin Egunkariak eta ibili horri hama hiru urte lanean jo eta ke. Gu gau batean itxi egingo dizuegu, eta ez da ezer gertatzen. Ez zaretelako ezer. Ez zarete, ez herri, ez kazetari, ez zarete ezer. Hori da ematen diguten mezua azken finean. Botere faxistaren mezua. Eta mezu hori ez da Egunkariari, mezu hori Euskal Herriari zuzentzen zaio.

IA: Lanuztearen egunean argi ikusi zen aspaldi kalera irteten ez zen jende asko protesta egin zuela. Hori garrantzitsua da, herri honek bizirik jarraitzen duela esan nahi duelako. **MB:** Operazio honekin jendearen bihotza ukitu egin dute. Joxemi Zumalabe eta Joseba Jakaren kontuen blokeoarekin eta Martin Ugaldere egindakoarekin argi ikusten da mina egitera etorri egin direla.

Langabetuentzako eraikuntza eta fabrikazio mekaniko arloko ikastaroak antolatu ditu Oarsoaldeak



Eskualdeko udalek, Oarsoaldearen bidez, 2003. Urterako lanbide prestakuntza diseinatu dute. Prestakuntzak eskualdeko langabetuei lana aurkitzea erraztu eta lan merkatuan txerta daitezela aukera eskaintzea du xede, eta, hori dela eta, plana diseinatzeko kontutan hartu dira eskualdeko enpresetan giza -baliabideen arloan dauden beharrak. Ikastaro hauek INEMen eta Europako Fondo Sozialaren Diru laguntzarekin eskaintzen dira. Aurten, Altxako Eraikuntza Teknikoko Institutuan emango diren ikastaroez gain, Fabrikazio Mekanikoko sektoreko ikastaroak eskainiko dira Don Boskon. Jarrarian aipatzen diren ikastaroak eskainiko dira:

Eraikuntza sektorean

-Pintura, emakumeek lehentasuna duten ikastaroa. 609 orduko iraupenekoa.

-Igeltseritza, 559 ordukoa.

-Iturgintza, 739 ordukoa

Ikastaro hauek Altxako Eraikuntza Teknikoko Institutuan emango dira.

Fabrikazio Mekanikoaren sektorean

-Estruktura Metaliko Arinen Soldadura, emakumeek lehentasuna duten ikastaroa, 705 orduko iraupenekoa.

-Industri Galdaragintza, 780 ordukoa.

-CNC-ko makina-erreminten prestakuntza-programakuntza, 775 ordukoa.

-Elektromekanika mantenua, 775 ordukoa.

Ikastaro hauek Don Boskon emango dira.

Ikastaroetara sartzeko baldintza orokorrak:

-Ikastaroko plaza kopurua: 15

-Langabezi egoeran aurkitzea eta INEMeko enplegu bulegoan izena emanda egotea.

-Ez da titulazio akademikorik eskatzen, ezta ikastaroekin erlazioaturiko lan-espertziarik ere.

-Orokorrean ikastaro guztietan, eta pintura eta soldadurakoan batik bat, emakumezkoen partehartzeak lehentasuna edukiko du.

-Lanbide prestakuntza aldi nahiz enpresetan burutuko den praktika epean disponibilitate osoa edukitzea.

Ikastaroak %100ra subentzionaturik daude. Ikastaro bakoitzeko informazio zehatza jaso ahal izateko Oarsoalde Eskualdeko Garapenerako Elkartea S.A.k Olibet Poligono 6an Errenterian duen bulegora zuzendu zaitezke (943.51.02.00), edo bestela INEMek Mauricio Ravel 14-16 Errenterian duen bulegora (943.34.08.95).

Euskara Elkarteetan


Topaguneak urteko batzar nagusia egin du

Pasa den martxoaren 22an, Euskara Elkarteetan Topaguneak bere aurtengo batzar nagusia egin zuen. Batzar honetan lau eztabaida puntu nagusi izan ziren: 2002ko jardura eta diru kontuak, 2003ko Kudeaketa plana eta aurrekontua, Bazkide berrien onartzea eta Zuzendaritza Berriaren onartzea. Iazko balantzea egiterakoan, oro har, urte emankorra izan dela ondorioztatu da, nahiz eta aurrekontua betetzeko estuasun dezente izan diren. Azpimarratzekoa, aurrekontuaren %41ean autofinantzatu egin dela diru iturri propioekin. Aurtengo planei dagokionez, hainbat egitasmo berri azpimarratu daitezke: asteburuetan.com, gaztetxoentzat ikastaro eta tailerren zirkuitua; Euskal zinemagileen film laburren zikloa eta euskal antzerki amateurraren zikloa. Esan baita, bi liburu argitaratuko direla: "Hitzarmengintza: entitateak euskalduntzeko metodologia", eta, euskaldun berrien eta mintza laguna programaren inguruko gidaliburua. Formazio arloan, etengabeko prestakuntzarako plana garatzea izango da erronka nagusia. Erakundeekin elkarlanerako aukera berriak aztertuko dira, eta diru laguntzan inguruan Jaurlaritzarekin hitzarmen berri bat egitea izango da xede.

Aipatu baita ere, iaz bederatzi bazkide berri egin zituela Topaguneak. Beraz, orain, guztira, 69 euskara elkarte dira Euskara Elkarteetan Topagunean bazkide.

Zuzendaritza batzorde berria osatu zen ere. Hona hemen zuzendaritzaren partaide berrien izenak:

Lehendakaria: Joxemari Muxika; Lehendakari orde: Kike Fernandez de Pinedo; Idazkaria, Iker Martinez de Lagos; Diruzaina, Benito Fiz; Bokalak, Liher Larrea, Pedro Zubero goitia, Iñaki Eizmendi, Aiara Labado, Iñigo Iruarizaga eta Karmen Irizar.



mendizaleen txokoa

Sail berri bat Brankan

Hilabete honetatik aurrera, Branka aldizkarian, mendizaleek badute zerekin gozatuaz, izan ere, Felipe Uriarte eta Mendiak eta Herriak elkarteko kideei esker, 'Mendizaleen txokoa' izeneko sailari egingo baitiogu tarte aurrerantzean. Denetarik aurkituko duzue bertan; ibilaldietarako proposamenak, aholkuak, txangoak, erreportajeak... mendizaleak asetzeko moduko berriak guztiak. Branka aldizkariaren erreakziotik gure eskerrik estimatuenak Mendiak eta Herriak elkarteko kideei eta zuei, irakurleei, goza dezazuela opa dizuegu.

Branka ere Mundumira

Joan den Otsailak 20an, Euskaldunon Egunkaria itxi ziguten.

Horrekin batera "MunduMira" itxi ziguten mendizaleoi, ostiralero Egunkariak plazaratzen zuen Mendizaletasuna eta Bidaizaletasunari eskeintzen zion gehigarria.

"MunduMira" kalitate handiko gehigarria zen, profesionala, objektiboa eta anitza. Estatu osoan ez zegoen antzeko gehigarririk, eta nik behintzat ez dut ezagutu European ez ta ere. Mendizaletasunean hain garrantzi handia duten Suiza, Frantzia, Italia edo Austria bezalako herrialdeetan ez dut nik ezagutu "MunduMira" bezalako gehigarria.

Itxi digute "MunduMira", bainan Egunkariaren asmoa bizirik dago, baitaere "MunduMira" egitasmoa, eta laister euskaldunok gure euskarazko Egunkaria eskuetan izango dugu.

Ale honetan Brankan ere "mundu mira" jartzen gara.

Gaurtik aurrera Brankan mendizaletasunari txoko bat eskeiniko diogu, leihotxo bat, nondik gure mendiei begirada bota, gure mendizaleei, eta batiere urruneko mendi eta herriei.

Laister berriz ere zabalik espero dugun "MunduMira" itxi digute, eta hemen Brankan beste leiho bat zabaltzen dugu.

Eta leiho txiki honetatik esan behar dugun lehendabisi-ko gauza: Egunkaria Aurrera.

Felipe Uriarte

Mendian zer abiaduran ibili?

Zein den ibiltzeko abiadura aproposena aukeratzea ez da erraza. Kontuan eduki behar ditugu ibili beharreko distantzia, desnibela eta zer zoru motatik ibiliko garen, gure esfortzu ahalmenaz gain.

Orokorrean; gure abiadura ordekan, 4 eta 6 Km ordu-

koa izango da eta aldapa gora, 300 eta 400 metro orduko desnibela gaindituko dugu. Neurri hauek kontuan edukita prestatuko dugu gure txangoa.

Abiadura hau baino azkarrago bagabiltza, gure gastu energetikoa handitu egiten da, eta hidratazioa eta elikadura zaindu beharko ditugu.

Bestalde, erritmo eroso eta gora-behera handirik gabekoa mantentzea komeni da, honek gure gorputzaren koipe azidoak kontsumitzen dituelako, eta ez, azkar eta geldiune asko dituen erritmo bat, honek glukogeno gehiago erretzen duelako eta glukogenoaren gabeziak kalambreen agerpena areagotzen duelako.

Eta minduta, nor disfrutatzen du mendiaz?

Esaera zaharrak esaten duen modura: zahar bat bezala hasi, gazte bat bezala amaitzeko.

Karmel Leizaola
Mendi gidaria

Mendi ibilbidea: Artikutza

Ibilbidea Bianditzeko gainean hasten da, Oiartzun eta Artikutza elkartzen dituen bidean. Kotxea hemen utzi eta ezkerretara goruntza igotzen den aldapa gainditu beharra dago, burdin-sare batera iristeko.

Hasiera puntutik 1,5 Km ingurura Arritxula (1) gainera hiltzen gara, non monumentu megalitiko anitz aurkitzen diren. Aipatu beharra dago, aintziña Orreagako mugetako bat adierazten zuen mugarria, bere eskumakil eta gurutzeta markatuta duelarik aurki dezakegula hementxe. Orreagako aintzinako muga honetatik gertu dugu Bianditz (2) (840 m) gaina.

Bianditz gaineratik ikuskizun aparta aurkituko dugu: Aiako harriak, jaizkibel, larrun... Zabalgunek bat da eta sasirik gabekoa, hemen artzaintza intentsitate handia dagoela nabari da.

Lepotik aurrera jarraituko dugu Gatzarrietako (3) harkaitz granitikoekin topa egin arte. Granito batzuk duten liken berdeak, itxura ikusgarria ematen dio inguruari.

Beharuntza jarraituko dugu Pagolletako (4) leporaino, ehiztarien borda eta zenbait ehiza-postuetatik gertu. Puntu honetan gurutzatuko dugu lehen aldiz burdin-sarea Artikutzara sartzeko. Behin barruan gaudela eskuinalderuntz doan bidea artuko dugu. Bide honek Artikutzako basoan zehar eramango gaitu, guarda-etxearekin (5) topo egin arte.

Azkenik karreteraz irteera punturaino igoko gara.

Datu baliagarriak: Goiz batetan egin ahal den ibilbidea. 7 Km inguruko luzeera du eta igoera-jeitsiera gehiegirik gabe. Bibliografia: - Liburua: "Rutas y paseos por Aiako Harria y Artikutza"

Egilea: Mikel Arrizabalaga (Sua edizioak).

br

apirila 2003

ANTXON:

APIRILAREN 1 ETIK, 6RA BITARTEAN, JAIZKIBEL MENDI TALDEAK ANTOLATURIKO MENDI ASTEA, KULTUR ETXEAN.

APIRILAREN 4AN: IKER GOENAGA TRIKITILARIAREN DISKOAREN AURKEZPENA, KORRIKA KULTURALAREN BARRUAN. ARRATSALDEKO 19:30TAN, KULTUR ETXEAN.



APIRILAREN 10EAN: EGUNKARIAREN ALDEKO HERRI BATZARRA, ALKATEORDETZAN, ILUNTZEKO 20:00ETAN.

30ETIK MAIATZAREN 11RA ARTE, TRENARI BURUZKO ERAKUSKETA KULTUR ETXEAN.

APIRILAK 7,8,9 ETA 11N. KAMARA MUSIKAREN ZIKLOA MUSIKA BANDAREN ESKUTIK, ARRATSALDERO, 19:30ETATIK AUERRERA KULTUR ETXEAN.

pabela zinekluba

Hilero bezala, **Pabela Zineklubak** egitarau zabala prestatu du apirilerako. Gogoratu **emanaldiak igandero** izango direla, **San Pedroko Udal Aretoan, arratsaldeko 18:00etan**.

Apirilak 6: Film laburra: "Bajo C", Ramón Gomezek 2001. urtean zuzendutakoa. Film luzea: "Drugstore cowboy". Zuzendaria: Gus Van Sant (1989).



Apirilak 13: Film laburra: "El diario de la abuela". Javier Ocañak, 2001. urtean zuzendutakoa. Film luzea: "Los Santos inocentes". Zuzendaria: Mario Camus (1984).

Apirilak 20: Film laburra: "Clases Deruso". Zuzendaria: Jose Antonio onet (2001). Film luzea: "Arizona baby". Zuzendaria: Joel Coen (1987).



Apirilak 27: Film laburra: "Expediente WC". Zuzendaria: Arturo Ruiz (2001). Film luzea: "Milenium mambo" Zuzendaria: Hou Hsiao Hsien (2001).

TRINTXERPEN:

APIRILAREN 13RA ARTE, TRINTXER KULTURALAK ANTOLATUTAKO ARGAZKI ETA PINTURA LEHIAKETAREN ERAKUSKETA IKUSGAI.

APIRILAREN 12AN: TAKOLO, PIRITX ETA PORROTZEN "KATXIPORRETA" EMANALDIA, TRINTXERPEKO FRONTOIAN, ARRATSALDEKO 18:00ETAN.

DONIBANEN:

APIRILAREN 11TIK 27RA BITARTEAN, ARALAR ARGITALETXEAK ARGITARATUTAKO "EUSKAL KARNETA, ALBUM VASCO" IZENBURUKO LIBURUAREN GAINEKO ERAKUSKETA, VICTOR HUGO ETXEAN.

GOGORATU EZAZUE APIRILAREN 5EAN KORRIKA 13A PASATZEN DELA GURE HERRITIK, BERAZ ADI EGON HONEN INGURUAN SORTZEN DIREN KULTUR EKITALDI GUZTIEI.

aurrera!

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

deitu
deitu

943 30 35 55 / 943 30 35 54

635733389 / 635733388

telefonoetara
telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefona helbide hauetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

www.egunero.info/harpidetza

Euskarak behar zaitu

Egunero

zuk zeuk!

FILMEA
'THE HOURS'

Zuz.: Stephen Daldry. Akt.: Nicole Kidman, Julianne Moore, Meryl Streep, Ed Harris. AEB, 2002.



Michael Cunningham idazlearen eleberriz kitzikagarria oinarri harturik, melodrama hunkibera erdietsi du Stephen Daldry finak. Muntaia paraleloaren bitartez, sasoi ezberdinetan bizi diren hiru emakume hitsen bizipen mikatzak biluzi egiten dizkigu. Leuntasunez. Sentiberatasunez. Maisutasun handiz. Bakardadearen gatibu da Virginia Woolf. Lara etxekoandrea bezalaxe. Clarissa olerkaria bezalaxe. Finnean, emakume berbera baitira hirurak. Maitasun debekatuen lilurak urratutako bihotz bakartiak. Maitasun ezinezkoaren oroitzapen kiskalietan kulunkatzen diren panpin pitzatuak. Gidoia aparta da. Interpretazioak, berriz, zirraragarriak. Julianne Moore ilegorriarena, bereziki. Estrategia negar-eragile oro saihestuz, emakumearen arimaren disezio samina egiten du Daldryk, zinki. Gordina da "The Hours". Mina dario. Baina lirikoa denik ere ezin uka; samurra; iradokitzailea... altzifre ilunen itzalean ere olerki ederrak errexitatu baitaitezke.■

LIBURUA
UNAI ELORRIAGA

'SPRAKO TRANBIA'



Liburu honekin hasi zen Unai Elorriaga bere ibilbide literarioa egiten. Nahiz eta berak itzultzaile lanetan jardun, "Sprako tranbia"-k Espainiako Narratiba saria jaso du. Beraz, ez da nolana izan idazlea. Itzulpen lanetan asko ikasi omen du literaturari dagokionez.

Betalde, erabilitako hizkera sinplea da, mundu guztiak ulertzeko modukoa baita.

"Sprako tranbia"-n Lucasen azken egunak kontatzen ditu. Lucas agurea da eta bere arrebarekin bizi da. Biak gaixorik daude eta amestetan bizi dira. Heriotzak ez ditu beldurtzen. Gainera, bere fantasiak Marcos gazteari aditzera ematen dizkiote. Marcos, Lucas ospitalean zegoen bitartean, haien etxean sartu okupa gisa. Gero, beraiekin bizitzen geratu zen.

Istoria oso polita da, sentimenduz josia. Horrez gain, zaharren arazoari buruz hitz egiten da bertan. Nire ustez, irakurtzea merezi du.■




INAKI LAZKANO



JUNKAL GARTZIA

LIBURUA
EDORTA AGIRRE

'ALMANAKA 2003. Ase eta Gose.'



Gutziz berezia da honako liburu hau, bitxia eta goxoa.

Egutegiaren ordenean antolatuta dago eta egun bakoitzari orri bat dagokio.

Orri bakoitzean informazio ezberdina aurki daiteke, hala ere, festa ospakizun, sukalde eta bitxikeritan oinarritzen da gehien bat.

Hilabete bakoitzaren hasieran halako ospakizun eta jai zerrendak lagunduko digu, nola ez, gure asteburuak alde aurretik antolatzen.

Ez da oso ohikoa liburuaren herena irakurri ez duzunean kritikatzeko ausartzea baino kasu honetan arazorik ez dago. Lehenengo egunetik usaitzen duzu idazterakoan utzitako ironia puntu hori, umore ikutuak ere non nahi, izenburu xebeak, KALEKUMEAK BASOAN edo ARRRAIN RZ esatebaterako, eta ziur nago liburu osoan hedatua izango dela.

Ez da erderazko lana, ez da erudizio kutxa, ez da errezeta mordoa, ez da jakituntzako mezua, ez da liburu ortodoxoa, ez da irakurlea nekatzekoa.

Euskal Herriko hizkuntza nazionalen sorturiko almanaka da, bere euskal zein erdal senideetan aurrena, jolas girokoa, ezjakitunaren gurdia arintzeko jomugakoa.■



JUAN OLALDE